



Kultur aniztasuna bultzatzeko jardunaldiak Kultur Etxean

IBARRA ▶ Jatorkin
etorkinen aldeko
elkarrekin antolatu ditu,
igandera arte

GAIAK ▶ Adin txikiko
etorkinen egoera eta
hizkuntzaren integrazioa
landuko dituzte ▶ 5



Arabiar lurraldeei buruzko argazki erakusketak inauguratu zituen atzo Kulturarteko Jardunaldiak. M. SOROA

TOLOSA ▶

Bakegintzari bultzada eman asmoz hitzaldia emango dute etzi

Uzturre Fundazioak antolatu du eta Jose Maria Setien
izango da hizlaria, udaletxeko batzar aretoan, 20:00etan ▶ 2



N. URBIZU

'La buena nueva' filmean agertzeko aktore bila

LEITZA ▶ Atzo hasi zuten kastinga, eta gaur
antzerki eskolako eta institutuko ikasleekin
gingo dituzte probak arduradunek ▶ 4

VILLABONA ▶

Bai Euskarari akordioa berretsi dute Udalak eta Kontseiluak ▶ 3

orange Zure zerbitzura
gure denda ONjby
onezkerok zabalik!

Orange

Gernikako arbola 1 • TOLOSA • 943 65 04 00

POLITIKA ▶

Bakegintzari bultzada eman asmoz hitzaldia emango dute etzi

Uzturre Fundazioak antolatuta, Jose Maria Setienek eskainiko du udaletxeko batzar aretoan, 20:00etan



Uzturre Fundazioko kideak atzo eskaintako prentsaurrekoan. I. TERRADILLOS

IÑIGO TERRADILLOS

Uzturre Fundazioak antolatuta, etzi bake prozesuari buruzko hitzaldia izango da Tolosako udaletxeko batzar aretoan, 20:00etatik aurrera.

Atzo egin zuten aurkezpenan, ekimen honek duen helburuaren berri eman zuten: «duela 4-5 urte sortu zen Uzturre Fundazioa, eta hordutik urtean zehar hainbat ekitaldi antolatzen ditugu; gure helburua gaurkotatzea da, eta eztabaida sortzea izaten da, jendeak gai horien inguruan gogoeta egin dezan», azaldu zuen Joxe Mari Agirrek Fundazioko ordezkariak. Hala, antolaturiko azken hitzaldia

Kataluniako egoera politikoaz izan zela gogoratu zuen, eta egun bizi dugun egoera kontuan hartuta interesgarria iruditu zaie antolatzaileei bake prozesuaz hitzaldia egitea. «Euskal Herrian urte honetan izan dugun gai nagusia eta ilusio handia sortu duena bakegintzarena izan da, azken bolderan kezka sortu duen arren, eta zuzenean dago lotua normalakuntzarekin; gai hori jorratzeko hizlari egokienaren bila egon gara, eta idatzi duena eta egin duen gogoeta sakona kontuan hartuta Jose Maria Setien Gotzain emeritua iruditu zaigu egokiena».

Bakegintzarako prozesua eta kontzientzia etikoa izenburu

rua jarri dio Jose Maria Setienek etzi eskainiko duen hitzaldiari, eta bere idazkietan eta dokumentuetan oinarrituko da eta egindako gogoeta emango du ezagutzera.

Antolatzaileek hitzaldi honen bidez gaia gizarteratzea lortu nahi dute; «gai honen inguruan gogoeta egin nahi duen orori dago zuzendua, eta gure asmoa ahalik eta jende gehien biltzea da, gaia gizarteratzea baita garrantzitsua; lehenengo hausnarketa egitea bilatu nahi dugu, eta ondoren, jendea inplikatzeko, hau da, herritarrek bere jarrera azaltzea, eta Tolosatik gure aletxo ipintzen saiatzea bake prozesuari».

EKONOMIA ▶

Amaroz paper fabrika egoera larrian dago

Bi miloi euroko zorra du; martxoan itxiko lituzte ateak egoerak hobera egingo ez balu

ERREDAKZIOA

Tolosako Amaroz paper fabrika egoera larrian aurkitzen da, eta ondorengo asteetan bideragarritasun plan bat ezarzen ez badute martxoan ateak itxiko lituztekeela azaldu dute. Dena den, «egun dituen arazoak oso larriak izan arren, ez dago oraindik itxeko moduan eta egoerak onera egitea posible da», adierazi dute.

Duela 135 urte sortu zen eta 120 langile inguru dituen lantokiaren arazo nagusia likidezia falta larria da. Hori kon-

pontzeko, bazkideek kapitalaren handitzea proposatu dute inbertitzaile batek egoera hobera emango duen itxaropenarekin. Gainera, akziodunen zati batek bere enpresaren zatia utzi nahi du langileak izan daitezkeen haien jabeak. Hori da, hain zuzen ere, enpresabatzordeari —ELAko zazpi delegatuk eta CCOOko bi delegatuk osatua— luzatu zaion proposamena, eta egun aztertzeko ari direna.

Lantegiak duen zor ofiziala bi miloi eurokoa lituzteke, baina langileek are handiagoa dela uste dute.

GIZARTEA ▶

Tolosaldeko babarrun ekoizleak omenduak

Herenegun egin zien omenaldia Tolosako Babarrun kofradiak Villabonako udaletxean

ERREDAKZIOA

Tolosako Babarrun kofradiak Tolosaldeko babarrun ekoizleak omendu zituen herenegun Villabonako udaletxean. Peio Cendoya Villabonako alkateordea eta Tolosako alkatea Yokin Bildarraz izan ziren ekitaldian.

Kofradiaren eta Tolosako udaletxearen artean dagoen «erlazio ona», eta elkarlanean burutzen dituzten ekimenak azpimarratu zituzten, eta eki-

taldian bertan, Kofradiako Maisu Handi berria izendatu zuten; Jose Migel Gomez Elosegui aukeratu zuten aho batez bertaratu zirenek, eta berak ordezkaturiko du «urte askotan Peio Cendoya Villabonako alkateordea eta Tolosako alkatea Yokin Bildarraz izan ziren ekitaldian».

Villabonako udaletxeak eskainitako luncharen ostean, kofradiako partaideak osagai nagusi bezala Tolosako babarrunak zituen bazkarian bildu ziren.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- beheak
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-mail: ennio@inmoennio.com
www.inmoennio.com

Anoeta. 3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Dena kanpoaldera. Bizitzen jartzeko moduan.

Anoeta. Duela gutxi eraikuntzan duplexa salgai. Garaje itxia aukeran. Oso egoera ona.

Berrobi. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta bi trasteleku. Igoailua jartzeko proiektuarekin.

Villabona. Kale Berria. Eraikuntza berria. Pisu altua. 100 m². Garaje itxiarekin.

Ibarra. Euskal Herria kalea. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Oso egoera onean.

Ibarra. San Inazio. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Bizitzera sartzeko moduan.

Berokuntzarekin.
Ibarra. Julian Gayarre. 2 logela, sukaldea, sala eta bainugela. Berokuntzarekin. Ezin hobeto. 239.805 euro.

Irura. Kale Nagusia. 2 logela, 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Garajea aukeran.

Irura. Kale Nagusia. 2 logela, sukaldea, egongela eta bainugela.
Leaburu bidean. bi solairuetan banaturiko 600 m²ko pabiloia alokairuan, 2.500 m²ko zelaiarekin.

Legorreta. Trasteleku salmentan. Bizikleta edo motorrak gordetzeko egokia.

Tolosa. Berazubi. Igoailu proiektua onartuta.

Tolosa. Eraikuntza berriko hainbat etxebizitza salgai. 2, 3 eta 4 logela aukeran. Garajeekin.

Tolosa. Beotibar. 36 m². Altua, 150.000 euro.

Tolosa. Zumalakarregi. 92m².

3 logela, 2 bainugela. Guztiz berrituta eta estreinatzeke. Garajearekin.

Tolosa. SAMen 3 solairu eta sotoa duen etxe abikia salmentan.

Tolosa. Pedro de Tolosa. 83 m². Distribuzio era desberdinak. Garajea aukeran.

Tolosa. San Frantzisko. 46 m²ko apartamentu berritua salgai. Igoailu, berokuntza eta garajearekin.

Tolosa. La Estrella. Etxebizitza salgai oso egoera onean. Igoailu eta garajearekin.

Tolosa. Bi logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Dena kanpoaldera. Sartzeko moduan. 215.160 euro.

Amezketan, Berastegi, Hernialde eta Ibarra. Hainbat etxe bifamiliari eta atxiki, eraikuntza berrikoak eta bigarren eskukoak.

VILLABONA ▶ EUSKARA

Villabonak euskarari baietz dio

Kontseiluak euskalgintzan herria «eredugarria» dela azaldu du

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko herrien eredia jarraituz, Villabonak ere Bai Euskarari akordioa berretsi zuen atzo Udalak eta Kontseiluak sinatutako lankidetzaz hitzarmenaren bidez. Bakartxo Tejeriak, Villabonako alkateak, eta Xabier Mendigurenek, Kontseiluko idazkari nagusiak, sinatu zuten. «Eredugarria da Villabonak guztiok batera proiektu berri hau martxan nola jarri duzuen», adierazi zuen Mendigurenek.

Hitzarmen honekin Villabonako Udalak euskararen nor-

malizazioa sustatzeko egindako ahaleginei bultzada eman nahi izan die eta 3.000 euroko dirulaguntza eman dio. 2004 urteaz geroztik, Kontseilua Udalarekin eta euskalgintzarekin batera, Bai Euskarari akordioa eta konpromiso prozesua garatzen ari da herrian. Bai Euskarari akordioa eskualde mailan garatzen da Tolosaldean. Horrela, Tolosako eta Zizurkilgo udalek ere badituzte lankidetzaz hitzarmenak Kontseilurekin.

«Udalaren eginkizuna da euskaraz bizitzeko aukera izateko neurriak hartu eta bultza-



Xabier Mendiguren eta Bakartxo Tejeria, atzo, sinaketaren une batean. I. GARCIA

tzea», adierazi zuen Bakartxo Tejeriak. «Euskaraz bizitzeko ametsa errealtate bihurtzeko guztion inplikazioa eta adostasuna beharrezkoa da», gaineratu zuen.

Ildo honetatik, «Villabonako da eredu baliagarria non euskalgintza, instituzioak eta

gizartea euskararen normalizazioaren alde elkarlanean ari diren», gaineratu zuen Xabier Mendigurenek. Izan ere, elkarlanean bidea da Kontseiluak jarraitu nahi duena eta gaurko hitzarmenaren ere, «elkarrekin aritzeko proposamena» egin die instituzioei. Horretaz gaine-

ra, «azpimarratzekoa da Bai Euskarari akordioa gerturatzeko asmoz Aiztondoko euskalgintza egiten ari den lana», adierazi zuen zorianak emanez Mendigurenek. Tolosaldeko eragileei dagokienez, aurten 69 ziurtagiri eskuratu dituzte guztira.

ANOETA ▶

Dantza-sokaren lehenengo entsegua, bihar

Anoetarrok Auzolanean plazaformako Kultura taldeak hirugarren aldiz dantza-soka antolatuko du aurten. Urtetik urtera jende gehiagok hartzen du parte: aurten dagoeneko 94 pertsonak eman dute izena. Orain entseguak egiten hasiko dira. Lehenengo bihar, 19:30ean, Edurkan. Bertan erabakiko dute aurrerantzean zein egunetan bilduko diren. Oraindik izena eman ez duen norbait balego, entsegu egunean azaltzea besterik ez du.

ANOETA ▶

Ipuin kontaketa saioa, gaur Udal liburutegian

Ipuin kontaketa saioa antolatu dute gaur arratsalderako Udal liburutegian. 18:00etan hasiko da ekitaldia eta Itziar Zubizarreta izango da ipuin kontalaria. LH1, LH2 eta LH3ko ikasleentzat, hau da, 6 eta 8 urte bitarteko haurrentzat zuzenduta dago saioa. Antolatzaileek puntualitatea eskatzen dute.

ASTEASU ▶ MENDIA

Vietnam, Laos eta Kanputxea ezagutzeko aukera bihar Kultur Etxean XII. Mendi Astearen baitan

Aste guztian zehar hainbat ekitaldi antolatu dituzte, larunbateko orientazio lasterketa tartean

ERREDAKZIOA

Asteasuko Udalak XII. Mendi Astea antolatu du. Atzo hasi ziren ekitaldiak Gasherbrum II mendiarri buruzko proiektioarekin, Aitziber Ibarbiaren eta Iñaki Urkolaren eskutik. Bihar jarraituko du bidaiari buruzko proiektio batekin. Vietnam, Laos eta Kanputxea ezagutzeko aukera izango dute Kultur Etxera, 20:00etan, agertzen di-

renek. Karmel Leizaolak emango du bidaiaren berri.

Eskia izango da protagonistak etzi. Udaletxeko zine aretoan baita ere, Andoni Areizagak *Mendiko eskiaren eboluzioa* izeneko proiektioa emango du.

Balizen bila

Larunbat goizerako orientazio lasterketa antolatu dute. Esperientzia ez da beharrezkoa par-

te hartzeko eta mendizale, gazte talde edo familiei zuzendua dago. Goizeko 09:30ean izen ematea irekiko da (bakarka edo taldeka egin daiteke) eta probaren argibideak azalduko dituzte. Ibilbidea Erreka bailaran izango da. Parte-hartzaileei mapa bat entregatuko zaie eta aldez aurretik ezkutututako balizak bilatu beharko dira. Brujula ez da ezinbestekoa eta parte-hartzaile guztiei opari bana emango zaie.

Larunbat arratsaldean Aiztondoko II. Eskalada Txapelketa egingo dute. Hiru mailatan jokatu da: A maila, 3-10 urte bitartekoak; B maila 10-30 urte bitartekoak eta eskaladore beteranoak. Proba 18:00etan hasiko da eta parte-hartzaile guztiei banatuko diete oparia. Igandean, berriz, 09:00etan herriko plazatik abiatuta, mendirteera egingo dute PR-Gi 76 (Asteasu-Usarrabai-Zelatun) bidetik.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Gerra Zibilari buruzko elkarrizketak. Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA Gerra Zibilari buruzko elkarrizketak ari da argitaratzen astero. Elkarrizketa horiek oso-osorik eta orain arte argitaratu diren guztiak irakurtzeko aukera dago webgunean sail berezi batean.

iragarki laburrak ▶

LANA
Iturgina. Iturgin lanetarako pertsona bat behar da. 656 41 68 08.

SALGAI
Sutarako egurra. Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da. 615 75 57 62.

BESTEAK
Txakurkumeak. Txakurkumeak oparitzen dira. 618 25 49 71.

TOLOSALDEKO HITZAK lan poltsa osatzeko banatzaile/buzoneatzaileak behar ditu Tolosaldean.

LAN-BALDINTZAK :

- Egunean 4 ordu.
- Goizeko 9:00etatik 13:00etara.
- Astean sei egun. Asteartetik igandera.

Interesatuak 943 30 35 33 telefonora deitu lehenbait lehen.

LEITZA ▶ KULTURA

Herriko izar gehiagoren bila, kasting bidez

'La buena nueva' filmerako probak burutu zituzten atzo; gaur, antzerki eskolakoekin eta institutukoekin izango dira



Udaberriean filmatuko duten pelikulan parte hartzera animatu diren herritar batzuk fitxa betetzen. N. URBIZU



Hainbat komunikabide hurbildu ziren herritarrek kameraren aurrean aurkezpena egin bitartean. N. U.

NEREA URBIZU

Atzo Leitzako udaletxea ohikoa ez den jendeak bisitatu zuen. Ez zen, baina, bulegoetan kontxultarik egitera hurbildu, kastinga egiteko baizik. Argi dago, beraz, herriko jende asko azalduko dela *La buena nueva* filman.

Adin guztietako jendea gerturatu zen, batik bat Leitzan grabatuko duten filman parte hartzeko helburuz; batzuk figurante papera egitea, beste batzuk «ongi pasatzeko» eta beste batzuk «pelikula bat nola egiten den ikusteko». Helena Tabernaren *La buena nueva* pelikula udaberri aldera grabatuko dute eta esan bezala, zatirik handiena, Leitzan herriaren eginen dute.

Goizaldean 11 lagunek baino ez zuten bete fitxa, baina «arratsaldean jende gehiago pasatzen ohi da», Helena Tabernarentzat lanean dauden kasting egileek esan zuten moduan. «Gainera, egin behar dena oso erraza da: zeure datuak eman guk emandako fitxa batean idatzita: telefono zenbakia, zuk dituzun gaitasun edo trebetasunak... Ondoren, argazki pare bat atera eta kamera baten aurrean zein zaren eta zenbat urte dituzun esan egin behar da, besterik ez».

Personaien paperak eta aktoreen zerrenda ere egiten hasiak dira: «Argi dago pertsonai nagusiak jada banatuta daudela, aktore errealek dira, nolabait esatearren; baina figurante asko behar ditugu, jende arrunta, kalekoa, ez politik ez ederrak edo bereziak: kaleko jendea da nahi duguna». Eta horretarako, jende arrunta bilatzeko, hain zuzen, hori egin zuten, egun osoan zehar udaleteko pleno aretoan.

Gaur ere egongo direla azaldu dute, baina institutukoekin eta antzerki taldekoekin: «Hauek zerbait hitz egin behar dute seguruenik: oraindik ez dakigu zeintzu izango diren, baina zehaztuz joango gara».

Orain arte ikastetxean egon dira, 7 eta 9 urte bitartekoekin, «horiek ere behar baititugu»,

FITXA ▶

Titulua. *La buena nueva*.
Zuzendaria. Helena Taberna.
Urtea. 2007ko udaberriean.
Herria. Leitza.
Gaia. 1936. urtean murgilduta, Altzania herrian dagoen apaiz gaztea garaiko Elizaren aurka egingo du, bere arabera justizia falta ikusten duelako.

FILMA

'La buena nueva' pelikula udaberri aldera grabatuko dute, eta zatirik handiena Leitzan eginen dute

eta horrez gain 3 urteko gazte-txoeekin. Argi dago, beraz, adin guztietakoak behar dituztela «oso gurea» izango den film honetan, 1936ko Gerra Zibilarekin baitu zerikusia, eta «gure aiton-amonek hau nahiko hurbiletik bizi izan zuten».

Zuzendari ezaguna

Helena Taberna zuzendaria kastingean bertan izan da. Aski ezaguna da Taberna, besteak beste *Yoyes* zuzendu zuen duela bi-hiru urte.

Zuzendari nafarrak Leitzan filmatuko duen istorioa hauxe izango da: apaiz gazte baten bizitza kontatuko dute, Altzania herri xumeko herriaren zegoela. Urtea, 1936a, Franco Errepublikako gobernuaren aurka aldatzen deneko, alegia. Elizako jerarkie aurre eginez, apaiz gazteak dituen sinesleak alde borrokatuko du, haien kontra egindako gehiegikeriak salatuz. Honi aurre egiteko modua, «anaien artean egondako gerra batek bere begiradan islatzen duen min sakona azalera-tuko du: Ebanjeliotik aldenduz altxatuen alde egin zuen Eliza agerian utziko du».

Zuzentzeaz gain, Helena Taberna gidoieko egilekide izango da, Andres Martorellekin batera.

hitza

Harpidedunen txokoa

HITZAko harpidedunen artean

Nobelaren

20 ale zozketatuko ditugu!

Parte hartzeko, deitu zenbaki honetara: 943 65 56 95

zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea



Jose Mari Iturralde idazlearen

"Hyde Park-eko hizlaria"

Eguberri honetan oparitu eta irakurtzeko nobela

Londresera joan ziren 1973ko uda hartan. Euskal Herriaren jendea isilik ibiltzen zen sasoiaren, Hyde Parkean adineko gizon bat euskaraz hitz egiten aurkitu zuten gerra galduaz. Jadanik ez dute Wight islan egon ziren oroitzen, baina joatekotan ibili zirela bai....

Joseba Sarrionandia

IBARRA ▶ KULTURA

Kultur aniztasuna lantzeko jardunaldiak Kultur Etxean

Jatorrin elkarteak antolatuta, etorkin adingabeen egoera eta hizkuntzaren integrazioa landuko dituzte, besteak beste

MADDI SOROA

Atzo zabaldu zituen ateak Jatorrin Tolosako etorkinen aldeko elkarteak Ibarra Udalarekin batera antolatutako Kulturarteko Jardunaldiak. Herri arabiarrei buruzko argazki erakusketa izan zen jardunaldiak inauguratzeaz arduratu zena, ondoren, tea eta goxoez dastatzeko aukera izan zuten Kultur Etxera gerturatutakoak.

Gauzak horrela, atzo hasi eta larunbatera arte, Kulturarteko Jardunaldiak toki hartuko du Ibarra Kultur Etxean. Antolatuzaileek azaldukoaren arabera, aktualitatezko bi gai hartu dituzte kontuan ekitaldi hauek egiterakoan. Batetik, laguntzarik gabe immigraturiko haurren kasua, Tolosako adin txiki-koen egoitzaren kasua, esaterako.

Bestetik, etorkinen integrazio linguistikoa hartu dute jardunaldietan landu beharreko gaitzat, izan ere, honakoa bezalako galderak burutzeko ohiko bilakatu da: «etorkinen integrazio linguistikoa beraien edo guztion lana da?», «Zergatik ez da hizkuntza etorkinen lehen-tasuna?», «Egia al da etorkinek euskararen normalizazioa oztopatzen dutela?».

Hitzaldiak edota bideo emanaldiak eta baita jardunaldi amaierako afaria ere, denetik izango da egunotan Ibarra Kultur Etxean. Helburua bakarra, ordea, kultur aniztasuna bultzatu eta zabaltzea, «Euskal Herrian garrantzi sozial, politiko, ekonomiko eta kultural handia duen gertakaria» delako.



Herri arabiarrek ekin diete Kulturarteko Jardunaldiei. MADDI SOROA

EGITARAUA ▶

GAUR

19:30. *Bizikletaz Magreben barna* bidaiaren kontaketa eta diapositiba emanaldia Jon Arretxeren eskutik.

BIHAR

19:30. Fernando Rojoren eskutik, *Mendebaldeko Afrikara bidaiari* buruzko diapositiba emanaldia

ETZI (OSTEGUNA)

19:30. *Lagundu gabeko adin txikiko etorkinak* lelopean hitzaldia izango da. Bertan izango dira Mercedes Jimenez Al Jaima elkarteko antropologoa eta Mohamed Simou Tangerreko adin

txikikoen harrera-etxeko giza hezitzailea.

HILAK 15 (OSTIRALA)

19:00. *Euskara eta etorkinen hizkuntza integrazioa* hizpide hartuta Mondragon Unibertsitateko Amelia Barquin irakaslearen eskutik hitzaldia izango da.

HILAK 16 (LARUNBATA)

21:00. Afaria Tolosako Oargi elkartearen eta ondoren *El Sueño de Malika* dokumentalaren proiektzioa. Afarira joateko, asteazken zehar Ibarra Kultur Etxean egingo diren jardueretan eman behar da izena.

LIZARTZA ▶

Baserrien eta Alondegiaren historia mintzagai

Gaur hasiko da herritarrek Alondegia barrutik ezagutzeko antolatutako Kultur Astea. *Alondegia herriarena eta herriarentzat* lelopean antolatutako ekintzetan lehen gaur iluntzeko izango da, izan ere, 20:00etan hitzaldia antolatu dute Alondigan bertan Aranzadiko Juanxo Agirrerren eskutik. Hitzaldian landuko den gaia, *Lizartzako baserrien eta Alondigaren historia* izango da.

IBARRA ▶

Bertso afarirako txartelak salgai Zubiaurren

Ibarra Gaztetxearen XIII. urteurrena dela-eta hainbat ekintza burutzen ari dira egunotan. Ekitaldi horietako bat, ostiralean Amets Arzallus, Xabier Silveira eta Jokin Uranga bertsolariekin egingo den bertso-afaria da. Afarira joan nahi duen orok Zubiaurren erosi beharko ditu txartelak 15 eurotan eta ikasleentzat 8 eurotan. Gogoratu, bihar amaitzen dela txartelak erosteko epea.

IBARRA ▶



Nola murriztu hondakinak? Eta zer egin sortutakoarekin?

M.Soraa ▶ *Nola murriztu ditzaket nire hondakinak? Eta zer egin sortutakoarekin?* Hala izena du Tolosaldeko Mankomunitateak zaborraren erabileraren inguruan argitaratu berri duen liburuxkak. Orain, gida herriz herri banatzen hasteko unea da. Atzokan, Ibarra plaza izan zen gida banaketa. Bihar, Berastegiko plazan izango dira 16:30etik 17:30era eta Berrobiko udaletxe azpian 18:00etatik 19:00etara. M.SOROA

AMETZ
ESTANKO

Tabakoa • Prentsa • Goxokiak

M. Goi Angeru enparantza, 2 • 20271 IRURA
Tel.: 943 69 96 51

ABURUZA Eraikuntzak, S.A.

Kale Berria, 46 behea • Tel.: 943 69 02 97 • Fax: 943 69 00 52 • 20150 VILLABONA

EGOITZ ZALAKAIN ▶ TRIATLETA



Burdinezko gizona

Hawaiko Ironmanetik bueltan, nahi bezalako lasterketa egiterik izan ez zuen arren «bizitako esperientzia oso positiboa» izan dela dio Egoitz Zalakainek

IÑIGO ASENSIO

Burdinezkoa da dirudienez. Halakoak izaten omen dira Hawaiko Ironmana egiten dutenak. Bera ez da, baina, guztiz konforme. 9 ordu eta 50 minututan munduko kirol probarik gogorrenetarikoa amaitu duen arren, lasterketan izandako hainbat arazok sentsazio gazi-gozoa utzi diote. Etxera bueltan, aurrerantzean zer egingo duen garbi ez duen arren, badaki kirola egiten jarraituko duela. Ez du «bere bizitza kirol gabe» ikusten. Hawaien bizi zuena esperientzia bikaina izan dela onartzen du, hala ere.

Bertan ikasitakoaz, lasterketaren gora-beherez eta aurrerantzean egingo duenaz mintzatu da **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREKIN Egoitz Zalakain** triatleta tolosarra.

Lehenengo denboraldi amaieran 4. izan zinen Munduko Txapelketan. Orduan helburua Ironmana egitea zela konstatatu zenigun baina nolakoa izan da denboraldia Hawaira joan aurretik?

Apirilera arte lesionatuta izan naiz baina behin sendatu nintzela dena bikain joan da. Oso maila onean aritu naiz eta ia proba guztietan podiora igo-tzea lortu dut.

Horrelako helburu bat aurrean izanda, aldatu al da zure prestaketa urtean zehar?

Ez dut uste gehiegi aldatu denik. Hasiera-haseratik Ironmana nuen buruan. Ez dut modu desberdinean entrenatu, gehiago baizik. Hiru kirolak denbora tarte luzeagotan landu ditut, Ironmaneko distantzietara egoitzeko baina entrenamendu modua betikoaren antzekoa izan da. Hasiera batean Nizan ekainean lehiatu nintzen probarako prestatu nintzen. Karrera hartan Hawaiaiko Ironmanean parte hartzeko 50 plaza zeuden jokoan, adin tarte bakoitzeko parte-hartzaile ko-

puruarekin proportzionalki banatuta. Munduan 25 proba inguruk ematen dute Hawaira-ko pasea, baina bakarrean parte har dezakegu. Nizara proban-tzea joan nintzen, ea Ironman bati aurre egiteko gai nintzen ikustera, sailkapena lortzen saiatzea baina gorputzak nola erantzungo zuen oso ondo ez nekienez lasterketa guztia kontrolatzen joan nintzen. Helburua ere ez zen Hawaira joatea, probatzea baizik.

Eta zer moduz joan zitzaizun? Izugarrizko lasterketa egin nuen. Dena ondo atera zitzaizdan, 17. izan nintzen bertan. Horrek Hawaira joateko plaza

BIDAIA

«3 egun pasa genituen lorik egin gabe, hegaldiek, itxaroteak... 6 egunen faltan nekatuta iritsi gin»

BERTAKO GIROA

«Nahiko giro arraroa zegoen bertan; fanatiko asko dago, jende normala ikustea asko kostatzen zen»

IRONMANA

«Helburua Ironmana egitea zen eta bete dut, oso esperientzia ona izan da eta asko gozatu dut prestatzen ere»

ematen zizun. Erabakia hartu beharko zenuen, ezta?

Bai, lortu ondoren pentsatzen jarri eta garbi zegoen opari bat zela aukera hura eta ezin utzi nezakela pasatzen. Orduan inoiz entrenatu ez dudana bezala hasi nintzen entrenatzen. Dendak oso eskaini diot, eta asko disfrutatu dut prestatze horretan. Uztaila erdialdera oin-eko hezur bat hautsi nuen eta hilabete gon behar izan nuen entrenatu gabe. Baliteke, dena den, atsedendaldi hori ondo etorri izana. Abuztutik aurrera berriro hasi nintzen maila oso altuan entrenatzen. Benetan gozatu dut prestatzea denbora hori guztia, baina asko-asko entrenatu dut.

Noiz jarri zinen haruntz mar-txan, nolakoa izan zen harai-noko bidaiak?

Nahiko bidaiak gogorra izan da. Urriaren 13an Bartzelonara joan nintzen, bertan lagun kataluniar batekin geratuta nengoelako. 14an Londresera egin genuen hegan, bertan Los Angeleserako lotura galdu genuen eta atzeratzen hasi ginen. Los Angelesera iritsi ginenean Hawaien terremotora zegoela esan ziguten eta hegaldiak ezeztatu zituztela esan ziguten. Goizeko ordu bietan iritsi ginenean Hawai. Orduan bizikletak galdu zituztela jakin genuen. Hiru egun generamatzan lorik egin gabe, hegaldiek eta itxaroteak neka-neka eginda eta gure bizikletak gabe.

Baina azkenean agertuko ziren, ezta?

Bai, noski. Nirea hurrengo egunean iritsi zen, eta nire laguna-rena 2 egun beranduago.

Beraz, 3 egun lo egin gabe pasa ondoren, hainbeste itxarondako Hawaiko Ironmana



5.000 metro igerian. Igeriketa tartea ohikoa baino motelagoa izan zen. 1.500 parte-hartzaile jaurti ziren uretara. Haien artean kolpe ugari izan ziren lehenengo postuei heldu nahian. Zalakaiek arazo berezirik gabe egin zien aurre igeriketako bost mila metroei. HITZA



180 kilometro bizikletan. Bizikletaz egin beharreko tartean hasi ziren arazoak tolosarrentzat. Azkarrago joan nahi eta ezin eta hartutako edariak tripan min eginda, buruari bueltak ematen hasi zen. Oraindik maratoi bat zuen korritzeke helmugara iristeko. HITZA



Maratoia. Maratoia erdia oinez egin zuen Zalakaiek. Buruari bueltak egin zituen hainbat kilometro. Azkenean beste filosofia batekin hartu eta korrika jarri zen azken 15 kilometrotan. Hala ere 9ordu eta 50 minutukoa izan zen bere denbora. Ez dago gaizki! HITZA

FITXA ▶

Izena. Egoitz Zalakain.
Jaioteguna. 1980-7-14.
Jaioterrria. Tolosa.

Altuera. 1,95 metro.
Pisua sasoi onean. 75 Kg.
Kirolari bat. Ole Einar Bjornaldalen.

Igerian, bizikletan ala korrika. Bizikletan.
Kirol bat. Triatloia.

Palmaresa:

- ▶ Ordiziako Triatloieko garaile 2005ean.
- ▶ Euskadiko Txapelkunorde Zarauzko erdi-distantziako triatloiean.
- ▶ Taldekako Munduko Triatloi Txuriko txapelkunorde 2000. urtean.
- ▶ 4. sailkatua 2005eko Munduko Triatloi Txapelketan.
- ▶ 2006ko Ironmana 9 ordu eta 50 minututan.

hasteko 6 egun geratzen ziren. Zer egin zenuen egun horietan?

Ba normalean proba garrantzitsuen aurretik asko entrenatzen dut, behar izaten dut. Baina bidaiako nekearekin eta hango beroa eta hezetasun ikaragarria egokitze behararekin atsedean hartzeko hartu nituen egun haiek.

Nolako giroa somatzen zen lasterketaren aurreko egunetan?

Ba egia esan nahiko giro arraroa zegoen. Fanatiko asko dago bertan. Jende normala ikustea asko kostatzen zen. Denek

Ironmaneko tatuajeak zeramatzaten, buelta bat ematera atera eta bizikleta beraiekin ermaten zuten, jendeak ezagutu zitzen. Ikaragarriko bizikletak, erlojupeko kaskoa, Ironmaneko arropak... Ez dakit, nahiko fanatismo ikus ziteken. **Baina jende arruntagoa ere egongo zen, ezta?** Ba oso gutxi. Egia esan oso desberdin sentitzen nintzen bertan. Jendeak itxurari ematen dio garrantzia guztia.

Beno, eta zer moduz joan zen lasterketa?

Gaizki, oso gaizki. Egindako bidaiak eta han pasatako aste harekin... oso nekatuta nengoen eta ez nintzen zentratzen. Hasi aurretik nituen sentsazioak ez ziren oso onak baino jarri ginen martxan. Igeriketan hasterako txundituta geratu nintzen. 1.500 pertsona uretan hasieratik guztia ematen. Jendea kolpeka zebilen, postuak ez galtzeko, nahiko egoera ezerosoa zen. Poliki-poliki jendearekin nazkatzen hasi nintzen. Igeriketa saioa motel xamarra izan zen orokorrean, baino arazo gehiegi gabea. Bizikletan hasterakoan nire karrera egin ezinik ibili nintzen, sentsazio txarrak nituen. Jendea pasa ahal izateko, bere atzetik kendu, azkartu, pasa, eta berriro eskuinera joan behar zenuen; guztia 20 segundotan. Horrelako batean 50eko talde bat topatu nuen, eta haiek pasatzea ezinezkoa zen. Epailak gainean zegoen. Tartetxoren bat bazegoen aurreratu zenezakeen, bai-

na aurreko eta atzokoarekin 7 metro utziz. Azkenean nazkatuta bukatu nuen, azkarrago joan nahi eta ezin pasa. Gainera hainbeste jendekin ezin izan nuen nire janari poltsa hartu, eta besterik ez ezean bertako edaria edaten hasi nintzen. Edaria oso hotza zegoen eta tripan mina egin zidan. Orduan bai nazkatu nintzela. Akaboi!

Gauzak gaizki hasten direnean...

Dena gaizki zihon bai. Buruari bueltak ematen hasi nintzen, gero eta jarrera negatiboagoa hartzen. Tripako min horrekin ezingo nuela korri egin pentsatzen nuen, batere motibaziorik gabe nengoen. Eta oraindik maratoi bat nuen aurretik. Jota nengoen. Maratoi erdia oinez egin nuen. Fisikoki banengoen, baina psikologikoki ezin nuen, hainbeste gauzei bueltak ematean guztiz zapuztu nituen nire aukerak. Poliki-poliki buelta ematen hasi nintzen egoerari. Pena handia zen, hain sasoi onean egon eta ezin nire onena eman. Beste filosofia batekin hartu behar nuen. Azken 15 kilometroak heldu zirenean berriro korrika hasi nintzen, galletak jaten, Hawaiano batzuk emandako koko batetik edaten...

Hala eta guztiz ere helmugara iristeak poz handia emango zizun, ezta?

Sentsazio kontrajarrikoak nituen. Normalean izugarriko emozioa sentituko nukeen, baina alde batetik poza nuen eta

bestetik tristura handia, ezin izan nuelako guztia eman. Triatloi munduko jende asko internetetik lasterketa jarraitzen ariko zela pentsatu nuen, horrek ere hunkitzen zaitu, baina tristurak ere neurri batean zapuzten du poza hori.

Zein denbora lortu zenuen azkenean?

9 ordu eta 50 minutu egin nituen. Ez da denbora txarra baina ondo joan izan banintz...

9 ordutatik behera agian?

Bai, nik uste dut baietz. Igeriketa motel xamarra izan zen, baina bizikletan ahal nuena baino motelago joan nintzen, eta maratoi erdia oinez egin nuen. Baietz esango nuke. Baina hala ere pozik nago. Helburua Ironmana egitea zen eta helburua bete dut. Oso esperientzia ona izan da niretzat. Askok gozatu dut prestatzen. Lasterketa azken puntua zen eta bertan ere asko ikasi dut. Positiboa da esperientzia, noski, baina azken

nean bertan zaudenean gehiago nahi duzu. Hori da dena.

Duela urtebete zure ametsa Ironmana egitea zen, eta orain?

Egia esan pentsatu ere ez dut egin. Konturatu naiz nire bizitza kirolarekin gozaten dudala. Ez naiz urte mordo baten ostean kompetitzen baina oraindik gauzak egitea gustatuko litzaidake. Ez dakit zer. Oraindik atsedenditxo bat hartuko dut.

Hawaira itzuliko zarela uste al duzu?

Ez dakit. Ez da korritzeko lasterketa polita. Ez paisaiengatik, ikaragarriak dira, baizik eta bertako giroagatik. Izan ere, oso estresantea da. Egiten badut arantza ateratzeagatik izango da. Nire buruaren aurka lehiatzea gustatzen zait lasterketa hauetan, nire lasterketa egitea, eta han ezin da horrelakorik egin.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Anoeta. Itziar Zubizarreta ipuin kontalaria, 18:00etan, udal liburategian.
Ibarra. Kulturarteko jardunaldien baitan, *Bizikletaz Magreben barna* bidaiaren kontaketa eta diapositiba emanaldia Jon Arrebexeren eskutik, 19:30ean Ibarra Kultur Etxean, Jatorkin elkarteak antolatuta.
Lizartza. 20:00etan, *Lizartzako baserrien eta alondegiaren historia* gaiarekin hitzaldia izango da Aranzadiko Juanxo Agirrereren eskutik, Alondegian.
Tolosa. Oderizera mendi irteera eta ondoren urte bukaerako babarrun jatea antolatu du Alpino Uzturrek iganderako. Izen-ematea, elkartean (Gudari 5. 943 652789).
Villabona. Gernika-Lekeitio mendi irteera antolatu du Aizkardi mendi elkarteak iganderako. Izen-ematea, elkartean edo 943 694458 telefonoan (Joxan).
Zizurkil. 18/98 auzipetuen aldeko Merkatu Txikia, Abulondo kultur etxean, ostiralera bitarte. Jendeak eginiko eskulanak eta ohiko materialak izango dira salgai.

ERAKUSKETAK

Tolosa. *Esperientziak*, XX. mendeko memoriaren berreskuratze proiektuko elkarrizketen bideoak ikusgai, Aranburu jauregian eta Gipuzkoako Artxibo orokorrean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.
Tolosa. Bronte, C. Korroze kalea, 20. 943 67 60 13.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotza* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZAren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotza* (errepikapena).
 20:00-21:00. *Goiko eskolatik betti*.
 21:00-22:00. *Izarrak eta ilargia*.


▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Magia guztion gozamenerako

BALIARRAIN ▶ Txan Magoaren emanaldiak 25 haur inguru bildu zituen atzo arratsaldean kultur gelan; aurretik askaria banatu zieten guztioi



Jendeak adi-adi begiratu zien trikimailuei; trufaren bat edo beste ere eragin zuen Txan Magoak. NEREA URBIZU



Txan Magoa, bere emanaldiaren une batean. N. URBIZU

ERREDAKZIOA

Arratsalde partean txokolate eta beste jaki gozoen usaina nabari zuten Baliarrain ingurura hurbildu zirenek. Kultur gelara azaldu eta bertan 10 ume inguru askaria gozo bat hartzen ari ziren. Guztia prest zuten eta kirioak ere dantzan zituen baten batek.
 Berandu xamar izan bazen ere tripa ondo bete ostean protagonistista heldu zen, Txan Magoa, hain zuzen ere. Ordurako ere ikusle kopurua hazi zen eta

dagoeneko 25 haur inguruk betetzen zituzten kultur gelako txokoak. «Ondo hasten dena ondo bukatzen da» esanez ekin zion bere emanaldiari mago ezagunak.
 Mobilak desagertzea, zapiaren atzean gauzak desagertaraztea, jendearekin txantxak egitea... Hauek guztiak eta bestelakoak ere egin zituen eta bertaratuek parte hartzea lortu zuen. Hala, jendeak adi-adi begiratu zien magoaren trikimailuei. Ondo hasi zena, beraz, ondo bukatu zen.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Iker Arana Garmendia (Tolosa). Gaur urtebete. Zorionak eta muxuak familiaren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa

hitza
 agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...